

**BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA.** Abadiñokoa izan da Garzon epailearen gutuna jaso duen lehen udala. Herri Batasuna Udalean sartu zenetik orain arte alderdiak aurkeztutako mozioak eta osoko bilkuran hitz egin dutenetako aktak eskatu dizkio Udalari.

# Udalei Batasunaren jardueren gaineko informazioa eskatzen hasi da Garzon

Abadiñoko alkate jeltzaleak esan duenez, ezingo dituzte agindutako epean batu akta eta mozio guztiak



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Berriozarko Abertzaleak taldeko zinegotziak, bilkuren aretoan *Eusko Gudariak* abesten, osoko bilkuraren amaieran.

Onintza Enbeita | BILBO

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak Euskal Herrian «garbiketa etnikoa egitea» egotzi zion Batasunari iazko urriaren 16an kalera-tu zuen ebazpen batean. Baieztapen hori frogatze alde-ra, informazio ugari biltzeko agindua eman zuen Garzonek; besteak beste, 1979az geroztik HBk, EHk eta Batasunak udale-tan, foru aldundietan eta EAEko eta Nafarroako legebil-tzarretan eginiko jardueri buruzko datuak eskatu zituen. Atzo jakin zenez, Garzonen informazio eskaerak jada hasi dira udaletara heltzen.

Abadiñoko Udala izan da Auzitegi Nazionaletik bidalita-ko gutuna jaso duen lehenengo udala. Bertan, «HBko, EHko zein Batasuneko zinegotziek, egun edozein izen daukatela ere, Udalean daudenetik egin dituzten mozio guztiak» eskatu ditu Garzonek. Horrekin bate-ra, alderdi berak berba hartu duen bakoitzean esan duena-ren kopia zertifikatua eta HB-EH-Batasunak sortutako edo bultzatutako protesten berri eskatu du epaileak.

Ostiralean eraman zuen gutuna Abadiñora Ertzaintzak, eta datorren astelehenerako, urtarrilaren 20rako, Madril-en egon behar dute agiri guztiek. Milaka izan daitezke eskatuta-ko agiriak. Izan ere, azken 20 urteotan beti izan du ezker abertzaleak zinegotziren bat Abadiñon.

Jabier Uriarte Abadiñoko alkatearen hitzetan (EAJ), «ezinezkoa da akta eta txosten guz-tiak datorren astelehenean ematea». Haren berbetan, «dokumentuok hain epe labur-rean ateratzeko, Udalaren eguneroko martxa gelditu egin beharko genuke, eta horretara bideratu funtzionamendu osoa». Orduan, ahal dutena emango dute astelehenerako, eta bestea aktak artxiboetatik atera ahala bidaliko dutela azal-du zuen.

Izan ere, gutuna hartu zuene-

## Batasuna udal taldea desegin du Berriozarko Udalak, IUNko zinegotzi baten botoari esker

Irene Arrizurieta | BERRIOZAR

Berriozarko Udalak ezohiko osoko bilkuran Batasuneko udal taldea desegitea erabaki zuen atzo. Jendez eta komunikabideez mukur zegoen are-toan taldea desegitearen alde bozkatu zuten PSNko lau zine-gotziek, CDNko biek eta IUN-NEBko zinegotzi batek. Aurka egin zuten Berriozarko Aber-tzaleak taldeko (Batasuna) lau zinegotziek, IUN-NEBko bes-teak eta AMO-Batzarreko ba-karrak.

Berriozar, Iruñekoaren atzetik, Batasuneko udal tal-dea desegitea erabaki duen Nafarroako bigarren udala da. Atzoko bilkuran abenduan udalera iritsi zen Baltasar Gar-zonen autoa «gauzatu beste-

rik» ez zutela egin argudiatu zuten aldeko botoa eman zu-tenek. Aurrerantzean Batasu-neko lau zinegotziak talde mistora pasako dira. Gainera, hilero taldeak jasotzen zuen 150 euroko dirulaguntza ken-duko zaio.

Jose Antonio Navidad IUN-NEBko zinegotziak alderdia-ren zuzendaritzak bezperan agindutakoaren aurka jokatu zuen eta Batasuna desegitea-ren alde bozkatu zuen. Here-negun Nafarroako Ezker Batu-ko zuzendaritzak udal talde bat ez dela nor beste bat dese-giteko esan zuen, eta bere alderdiak ez duela horrelako bozketetan parte hartzen.

Navidaden erabakiak talde-kide duen Santiago Viedma-ren haserrea eragin zuen.

Viedmak hauteskundeetarako hiru hilabete falta direnean «horrelako saltsetan guztiak kakaztea» kritikatu zuen. Egin zuenagatik dimisioa eskatu zion besteak irri batekin eran-tzuten zion bitartean. «Beste alderdi batean egon beharko zenuke», bota zion Viedmak.

Navidadek argitu zuen ez zela IUNko udal taldearen ez alderdiaren izenean ari, bere izenean baizik. Alderdien Le-gearen aurka azaldu zen, bai-na legeak eta erabaki judizialak eta Garzonen autoa «bete eta errespetatu» egingen ditue-la gaineratu zuen. Batasuna desegiteko erabakiak «ez du inor legez kanpo uzten, eta Batasuneko zinegotziak talde mistora pasatu besterik ez du eginen. Proposamena ez da

Berriozarko herena ilegaliza-tzea», adierazi zuen.

### «Erabakia politikoa da»

Iñaki Ekisoain Batasuneko zi-negotziak erabakia «politi-koa» dela salatu zuen. Batasu-neko ordezkariak «Euskal He-rriko eta Berriozarko herritar moduan biltze eta antolatze eskubidea ukatu» egiten zaie-la deitoratu zuen. Azken hau-teskundeetan herrian boto gehien lortu zuen taldea dese-giten ari zirela esan zuen Eki-soainek eta Navidadek «Garzo-nen polizia judiziala izatea» leporatu zion.

Bilkura bukatzean pleno aretoan zeuden herritar askok *Stop faxismoari. Berriozar au-rerra* zioten txartelak eta pan-karta bat atera zituzten. Pro-tesa *Eusko gudariak* abestuz bukatu zuten, beste batzuk *Gora Nafarroa* erantzun zieten bitartean.